



USURBILGO ATSOBAKAR A-108 (TE) EREMUKO 108.4 ETA 108.5 EXEKUZIO-UNITATEETAKO KIROL-INSTALAZIOEN EXEKUZIO-PROIEKTUA ETA JARDUERA-PROIEKTUA IDAZTEKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

1.- XEDEA

Usurbilgo Atsotakar A-108 (TE) eremuko 108.4 eta 108.5 exekuzio-unitateetako kirol-instalazioen exekuzio-proiektua eta jarduera-proiektua idazteko zerbitzu-kontratua arautuko duten baldintza teknikoak zehaztea da agiri honen xedea.

2.- PROIEKTUAREN ESPARRUA

Hauek dira baldintza-agiri honek erreferentzia egiten dion eraikuntza-proiektuaren espazio-eremuak: Usurbilgo Atsotakar A-108 (TE) eremuko 108.4 eta 108.5 exekuzio-unitateak eta Lasarte-Oriako arau subsidiarioen HIE A- 11 Urbarte eremua.

Udalbatzak onarturiko oinarrizko proiektuan jasotzen da eremua, zeinaren barruan baitaude kirol-instalazioak, horien inguruko urbanizazioa eta lanak egiteko erabiliko diren sarbideak.

3.- PLANEAMENDUA

Usurbilgo arau subsidiarioetako Asteasuain 6. sektoreko plan partzialeko zehaztapenak eta Lasarte-Oriako arau subsidiarioetako zehaztapenak bete behar ditu proiektuak xede duen eremuak.

4.- PROIEKTUAREN EDUKIA ETA DOKUMENTUAK

Proiektuaren bidez, osorik garatuko da Lasarte-Oriako udalbatzak onarturiko oinarrizko proiektua. Proiektu horretan, egin beharreko kirol-instalazioak zehazten dira; besteak beste, atletismo-pista, erabilera anitzeko zelaia (futbola, errugbia), instalazioei zerbitzu emateko eraikina eta harmailen eraikina.

Halaber, proiektu horren barruan, dagokion jarduera-proiektua idatzi beharko da.

Hala, proiektuaren definizio osorako beharrezkoak diren instalazioak garatzeko proiektuak jaso beharko dira.

Horrekin batera, urbanizazio osagarria ere jaso beharko da proiektuan: errepidezko eta oinezko sarbidea, inguruaren urbanizazioa eta ekipamenduaren zerbitzu-sareak udaleko homidura-sareekin lotzeko lanak.

Exekuzio-proiektuaren bidez, eraikinek eta kirol-instalazioek prestazio hauek dituztela ziurtatu beharko da:

Sektoreko araudia eta, bereziki, energia-jasangarritasunari buruzko EAeko 4/2019 legea betez, kirol-instalazioek jasangarriak izan behar dute, eta ia ez dute energiari kontsumitu behar. Egingo diren eraikuntza eta instalazioek prestazio hori bete beharko dute.

Eraikinak A energia-kalifikazioa izan behar du.



Lasarte-Oriako Udalak honako dokumentu hauek jarriko ditu eskura: oinarrizko proiektu idatzia eta Usurbilgo eta Lasarte-Oriako udal plangintzetan partzelari buruz zehazturiko hirigintza-baldintzak. Zerbitzuen udal-sareei eta azterketa geoteknikoari buruzko planoak.

Halaber, egikaritze-proiektuak oinarrizko proiektua egokitu beharko du Usurbilgo Udalak oinarrizko proiektuaren lizentzian ezar ditzakeen baldintzetara.

4.1. EXEKUZIO-PROIEKTUA (Ikus I. eranskina)

Edukia

Exekuzio-proiektuan, ELOn, EKTn eta nahitaez bete beharreko araudian jasotako dokumentazio guztia jaso beharko da, eta, gutxienez, honako dokumentu hauek:

- Memoria eta eranskinak*
- Planoak
- Preskripzio tekniko partikularren agiria
- Aurrekontua (neurketak + 1 eta 2 prezio-koadroak + aurrekontua)
- Segurtasun- eta osasun-azterketa
- Kalitate-kontrolako programa
- Hondakinen kudeaketari buruzko dokumentazioa

* Proiektuak eranskin hauek izan beharko ditu, gutxienez:

- Egituraren eta zimenduen kalkulari buruzko eranskina.
- Proiektuari dagokion eraikinaren energia-ziurtagiria (A sailkapena).
- ESI eta Euskal Autonomia Erkidegoko irisgarritasun-baldintzak betetzeari buruzko eranskina.
- Instalazioen garapenerako proiektua/k, obrak aurrera eramateko eta dagokion administrazio sektorialaren aurrean tramitatzeko behar adinako definizioarekin.
- Kirol-partzelaren kanpoaldeko urbanizazio-lan osagarrien separata (horien artean, hartuneen lanak eta azpiegitura orokorretako loturak).
- Kirol-instalazioaren jarduera-proiektua.

Urbanizazio osagarria

Green Plazaren ondoan dagoen bidearen jarraipena eta Atsobakarko bidearekin duen lotura erabaki beharko da, oinarrizko proiektuan adierazitakoarekin bat. Aparkalekuak jarri beharko dira eta ingurunearen urbanizazioa erabaki beharko da: kirol-instalazioena nahiz proposatutako errepidezko eta oinezko interbentzioarena (bizikleta-bide bat ere egin beharko da instalazioen sarreraraino).

Dokumentazioa:

Adjudikaziodunak exekuzio-proiektuaren hiru zirriborro entregatu beharko dizkio udalari paperean eta kopia bat formatu digitalean, udaleko zerbitzu teknikoek aztertzeko.

Exekuzio-proiektuaren aurrekontua obra aurrera eramateko egin beharreko lan guztien merkatuko prezioen balorazioaren bidez kalkulatu da. Bestalde, eranskin batean,



instalazioetako azpiegitura eta zerbitzuetarako lotura, tramite eta hartune-eskubideen kostuak jaso beharko dira.

Proiektuaren (udaleko) zuzendaritzak behar adina aldaketa agindu ahalko ditu proiektuan udalaren beharrei erantzuten dieten instalazioak lortzeko, betiere, onarturiko oinarrizko proiektuaren esparruan. Aldaketa horien gastuak adjudikaziodunaren kontura izango dira.

Udalak aztertu eta onartu ondoren, behin betiko edizioa entregatuko da: 4 ale DIN A4an, DIN A1 eta A3 planoak, proiektu osoaren CDa, programa informatiko (manipulagarrien) jatorrizko fitxategiekin (segurtasun-elementurik gabe), Lasarte-Oriako Udalak erabili ahal izateko.

Lizitatzailleak aukera izango du proiektua ikus-onesteko, eta haren kontura izango dira ikus-onesteko lanen gastuak eta eskubideak.

Baimena lortzeko proiektua Usurbilgo Udalean aurkeztu ondoren, eta hark proiektuaren edukari eragiten dioten baldintzak jartzen baditu, adjudikaziodunak beharrezkoak diren aldaketak egin beharko dizkio proiektuari. Horretarako, hilabete bateko epea izango du, Lasarte-Oriako Udalak proiektua Usurbilgo Udalaren baldintzen arabera konpontzeko eta osatzeko egindako errekerimendutik kontaktzen hasita.

Exekuzio-proiektua idazteko eta aurkezteko epeak

Adjudikaziodunak hiru hilabete (3) baino gutxiagoan entregatu beharko du proiektuaren zirriborroa, proiektua idazteko berariazko enkargua egiten denetik aurrera.

Behin betiko dokumentazioa, berriz, bi (2) hilabeteko epean aurkeztu beharko da, dagozkion udal-txostenak entregatzen direnetik kontaktzen hasita.

5.- ERREDAKZIO-TALDEA

Eskaintzan, lana aurrera eramango lukeen pertsona-taldearen zerrenda jaso beharko da. Diziiplina anitzeko taldea izan behar du (gutxienez arkitekto bat, errepideetako ingeniari bat, instalazioen ingeniari bat eta arkitekto tekniko bat).

1.200.000,00 €-ko balioko eta gehiagoko eraikuntza-lanak, 1.250.000,00 €-ko balioko urbanizazio-lanak eta/edo obra zibileko lanak eta 250.000,00 €-ko balioko eraikuntza-instalazioen lanak proiektatu edo exekutatu izana egiaztatu beharko da (exekuzio materialeko kopuruak dira guztiak).

6.- LANAREN ZUZENDARITZA TEKNIKOA

Udaleko teknikari batek eramango du aurrera administrazioaren zuzendaritza teknikoa.

Hauek dira zuzendari teknikoaren funtzioak:

- Proiektua egiteko beharrezkoak diren bitartekoak eta antolakuntza eskatzea.



- Baldintza teknikoen agiria eta kontratuan edo xedapen ofizialetan jasotako gainerako baldintzak interpretatzea.
- Proiektuan sartu beharreko aldaketa guztiak programatzea. Zuzendari teknikoak ahalmen espresua du lana aurrera eramateko programa aldatzeko, kasu bakoitzeko inguruabarren eta lanak aurrera joan ahala lortutako emaitzen arabera.
- Egindako lanaren likidazioa egitea, baldintza-agirian jasotako epe eta ordainketa-moduen arabera, baldin eta, zuzendari teknikoaren aburuz, egindako lanak baldintza-agiri honen xedearen eskakizunak betetzen baditu.
- Kontratatutako lanak etengabe eta modu zuzenean ikuskatzea eta zaintzea. Horretarako, zuzendari teknikoak beharrezko iritzitako bilera, bisita eta azterketak egin beharko ditu adjudikaziodunak lanaren edozein prozesu edo fasetan, eta horretarako beharrezkoa den informazioa eman beharko du.
- Egoki iritzitako erakundeak, elkarteak, espezialistak... segimendu-bileretara joan daitezten eskatzea, haiek beren iritzia eta lankidetzara eman dezaten, hartara ahalik eta kalitate edo adostasun handieneko lanak egingo direla ziurtatzeko.
- Lanak aurrera eramatean izandako gorabehera ororen tramiteak egitea.

7.- ADMINISTRAZIOAK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA ETA LAGUNTZA

Adjudikaziodunak beste iturri batzuetatik lor dezakeen informazioa alde batera utzirik, udalean gaiari buruz dagoen informazio guztia jarriko du udalak adjudikaziodunaren esku, eta adjudikaziodunak hirugarrenekin dituen kudeaketetan lagunduko du, baldin eta beharrezkoa bada.

Adjudikaziodunarentzako kopiatutako dokumentazioaren gastuak haren kontura izango dira, baldin eta halako gasturik badago.

8.- ADJUDIKAZIODUANK ADMINISTRAZIOARI EMANDAKO LAGUNTZA

Adjudikaziodunak administrazioaren esku jarri beharko ditu lanen xedea ondo betetzeko beharrezkoak diren zerbitzu profesionalak (horien artean, azalpen-bileretara joatea, informazio publikoa...), inolako gastu gehigarririk gabe. Halaber, zuzendari teknikoaren ustez beharrezkoak eta arazoizkoak diren segimendu-bilera guztietara —hark adierazitako lekura— joan beharko du, eta ezingo du aitzakia gisa erabili erredakzio-talde adjudikazioduneko kideen bizilekua.

9.- KONFIDENTZIALTASUNA ETA LANAREN JABETZA

Fase guztietan egindako lanak Lasarte-Oriako Udalaren jabetzakoak izango dira, eta, ondorioz, Lasarte-Oriako Udalak edozein unetan eskatu ahalko du egindako lan-zatiak entregatzeko, baldin eta lanak aurrera eramateko behin betiko programarekin bat badatoz eta entrega horrek eraginik ez badu lanen bilakaeran.

Adjudikaziodunak inolaz ere ezingo ditu beretzat erabili kontratatutako lanen datuak, ez eta hirugarrenei jakinarazi edo eman ere. Halaber, ezingo du argitaratu edo kopiatu —ez osorik



ez partzialki— lan horien edukia, lanen legezko jabetza duen udalaren idatzizko baimenik gabe. Kasu guztietan, adjudikazioduna izango da obligazio hori ez betetzeak ekarritako kalte-galeren arduraduna.

10.- AURREKONTUA ETA ORDAINTZEKO MODUAK

Lanak egiteko gehienezko aurrekontua HIRUROGEITA HAMABI MILA LAUREHUN ETA SEI EURO ETA BERROGEI ZENTIMOKOA izango da (BEZa barne). Kopuru hori honela banatzen da: batetik, berrogeita hemeretzi mila zortziehun eta berrogei euro (59.840,00 €) eta bestetik, hamabi mila bostehun eta hirurogeita sei euro eta berrogei zentimo (12.566,40 €), BEZari dagozkionak. Honela ordainduko da azkenean lana adjudikatuko den kopurua:

- A. Lehenengo ordainketa exekuzio-proiektuaren zirriborroa aurkeztean (eskainitako ordainsarien % 30).
- B. Bigarren ordainketa behin betiko exekuzio-proiektua aurkeztean, eranskin, proiektu osagarri eta jarduera-proiektuarekin batera (eskainitako ordainsarien % 60).
- C. Falta den kopuruaren likidazioa proiektuaren baimena onartu edo lortzean. Gehienez urtebeteko epea egongo da behin betiko proiektua entregatzen denetik.

Adierazitako ordainketa horien barruan dago testu bateratuen idazketa, baldin eta beharrezkoak badira.



ERANSKINA I Exekuzio-proiektua

MEMORIA

Dokumentazioa

Eragileak

Aurretiazko informazioa

Proiektuaren deskribapena

Eraikinaren prestazioak

Hirigintza-justifikazioa

Azalaren koadroa (erabilgarriak eta eraikiak)

Proiektuaren memorian, azalera erabilgarrien eta eraikien koadroak aurkeztu behar dira.

Azalera eraikietan ez du desberdintasunik egon behar, memorian edo planoetan koadro desglosatuak egin arren (solairuka, erabileren arabera, eraikinen arabera...).

Hirigintza-justifikazioan, modu arrazoituan azaldu beharko dira azalera konputagarriak, eta horiek ez dute bat etorri beharrik azalera eraikiekin.

Eraikinaren sostengua

Egiturazko sistema

Sistema inguratzailea

Konpartimentazio-sistema

Akabera-sistema

Instalazioen egokitze sistema

Ekipamendua

Urbanizazio osagarria eta sarbideak

EKT betetzea eta araudi teknikoa.

DB-SE. Egiturazko segurtasuna

DB-SE AE. Eraikingintzako ekintzak

DB-SE CIM. Zimenduak

NCSE-02. Eraikuntza-arau sismorresistentea

DB SE M. Egurra

DB SE A. Altzairua

DB SE F. Fabrika

EHE.08. Egiturazko hormigoari buruzko instrukzioa

DB-SI. Suteen aurreko segurtasuna

DB-SI 1. Barneko hedapena

DB-SI 2. Kanpoko hedapena

DB-SI 3. Jendea ateratzeko modua

DB-SI 4. Suteen aurrean babesteko instalazioak

DB-SI 5. Suhiltzaileen esku-hartzea

DB-SI 6. Egituraren erresistentzia suarekiko

RSCIEI. Industria-establezimenduek suteen aurka izan beharreko segurtasunari buruzko

araudia

DB-SUA. Erabileraren segurtasuna eta irisgarritasuna

DB-SUA 1. Erorketen arriskuaren gaineko segurtasuna

DB-SUA 2. Inpaktua jasotzeko edo harrapatzeko arriskuaren gaineko segurtasuna

DB-SUA 3. Itxita geratzeko arriskuaren gaineko segurtasuna

DB-SUA 4. Argiztapen desegokiak eragindako arriskuaren gaineko segurtasuna

DB-SUA 5. Okupazio handiak eragindako egoerek sortutako arriskuaren gaineko

segurtasuna

DB-SUA 6. Itotzeko arriskuaren gaineko segurtasuna

DB-SUA 7. Mugimenduan dauden ibilgailuek sortutako arriskuaren gaineko segurtasuna

DB-SUA 8. Tximistek sortutako arriskuaren gaineko segurtasuna

DB-SUA 9. Irisgarritasuna

DB-HS. Osasungarritasuna



DB-HS1. Hezetasunaren aurkako babesa
DB-HS2. Hondakinak jasotzea eta ezabatzea
DB-HS3. Barneko airearen kalitatea
DB-HS4. Ur-hornidura
DB-HS5. Ur-hustuketa
DB-HS6. Radonarekiko esposizioaren aurreko babesa

DB-HR. Zarataren aurkako babesa

DB-HE. Energia aurreztea
DB-HE0. Energia-kontsumoa mugatzea
DB-HE1. Energia-eskaria mugatzea
DB-HE2. Instalazio termikoen errendimendua
DB-HE3. Argiztapen-instalazioen energia-eraginkortasuna
DB-HE4. Etxeko ur berorako gutxieneko eguzki-ekarpina
DB-HE5. Energia elektrikoaren gutxieneko ekarpen fotovoltaikoa

Irisgarritasuna (EJ 68/2000 D.)
Behe Tentsioko Araudi Elektroteknikoa
Beste batzuk (RIGLO, erabileraren araberako araudi sektoriala, etab.)

Eranskinak

Informazio geoteknikoa
Egituraren kalkulua
Suteen aurkako babesa
Eraikineko instalazioen garapen-proiektuak
Energia-eraginkortasuna. Proiektuaren kalifikazioa eta energia-ziurtagiria (235/2013 ED eta 226/2014 ED)
PCC. Kalitate-kontrolerako plana (s/ EKT eta EJ 209/2014 D)
ESS. Segurtasun- eta osasun-azterketa
Hondakinen kudeaketari buruzko azterketa (105/2008 ED, EJ 112/2012 D)

PLANOAK:

Egungo planeamenduaren kokapen-planoa, puntu lokalizagarriak eta iparralde geografikoa adieraziz.

Kokaleku-planoa

Hirigintza-justifikazioa, lerrokadurak, atzeraemanguneak, etab.

Hirigintza-planoak

Bide-sarea, hartuneak, etab.

Instalazioen barneko eta kanpoko zoru eta akaberen definizioa

Hirigintza-xehetasunak

Azpiegitura-sareak, etab.

Solairu orokorrak

Mugatuak, eskala eta erabilerak adieraziz, baita elementu finkoak eta altzariak ere, espazioen funtzionaltasuna egiaztatzeko beharrezkoa denean.

Estalki, isurki, uren bilketa puntu eta abarren planoak.

Altxaerak eta sekzioak

Mugatuak, eta eskala eta solairuen altuera-kotak, forjaketen lodiera eta guztizko altuerak adierazita, hirigintza arloko baldintzak eta baldintza funtzionalak betetzen direla egiaztatzeko.

Egitura-planoak

Egiturazko sistema osoaren deskribapen grafikoa eta dimentsionala (zimenduetan, sostengu-egitura eta egitura horizontala). Zimenduei buruzko planoetan, gertuko inguruarekiko eta obra osoarekiko lotura ere jasoko da.



Instalazioen planoak

Instalazio bakoitzeko sareen, solairuen, sekzioen eta xehetasunen deskribapen grafiko eta dimentsionala.

Eraikuntza-definizioari buruzko planoak

Eraikuntza-xehetasunen deskribapen grafikoa.

Memoria grafikoak (arotzeria...)

Intenbide zehatzak eta elementu bereziak: arotzeria, sarrailak...

BALDINTZA-AGIRIA

Xedapen orokorrak

Aukerako xedapenak

Preskripzio tekniko partikularren agiria

Materialei buruzko baldintzak

Obraren exekuzioari buruzko baldintzak

Amaitutako eraikina egiaztatzeari buruzko baldintzak

AURREKONTUA

Neurketak eta aurrekontua

Aurrekontuaren laburpena kapituluak, exekuzioaren eta kontrataren amaierako balioa adierazita, baita hondakinen kudeaketari, kalitate-kontrolari eta segurtasun- eta osasun-azterketari buruzko kapituluak ere.

Neurketa zehatzak

Banakako prezioak:

Neurketak eta partida bakoitzeko prezioak jasotzen dituen aurrekontua.

Obrak definitu eta justifikatzeko behar adina eranskin izan beharko ditu proiektuak.